

Eusko Ikaskuntza

Eta gazteak Bilbon euskaraz, zergatik ez?
Gazteen euskararen erabileraren azterketa Bilbon

2018.02.12



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

Eta gazteak Bilbon euskaraz, zergatik ez?

Gazteen euskararen erabileraren azterketa Bilbon

Lan talde profesionala

Jone Goirigolzarri Garaizar

Idoia Carramiñana Miranda

Ane Ortega Etcheverry

Josune Etxaniz Barrio

Laguntzaileak

Laura Alberdi Zumeta, Ana Aldekoa Díez, Nahia Alonso Fernández, Ane Atxutegi Gutiérrez, Paul Beitia Ariznabarreta, Maite Garcia Ruiz, Aitor Ibarretxe Usategi, Ane Iturriarte Basterretxea, Xabier Landabidea Urresti, Uxue Zalbidea Olabarri, Ainara Zuazo Korta, Elena Zubiaga Zorrozu

Sustatzaileak

100  **EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

Bilbao

Aurkibidea

Aurkezpena	3
1. Sarrera	4
2. Metodologia	7
2.1. Lan taldea	7
2.2. Gazteen foroa	7
2.3. Kontraste mintegia	10
3. Emaitzak	12
3.1. Gazteekin egindako foroaren emaitzak	12
3.2. Kontraste mintegia	29
4. Laburbilduz	38
5. Erreferentzia bibliografikoak	41

AURKEZPENA

Bilboko gazteen artean euskararen erabilera txikia dela esaten da, baina zeintzuk dira arrazoiak? Egoera honen aurrean, nola lagundu dezakete ardua duten agente eta agintariek? Zer egin dezakegu?

Gaur egungo gizartearen kezka erantzutea eta konponbide berriak eskaintzea da Eusko Ikaskuntzaren helburu nagusietako bat. Euskararen erabileraren errealitatea eta erronka aztertu nahian 'Eta gazteak Bilbon euskaraz, zergatik ez? Gazteen euskararen erabileraren azterketa Bilbon' ikerketa proiektua landu da.

Bilboko gazteen artean erabilera ezaren gakoan bila aritu dira ikerketa honen arduradunak, eta lanketa honetan nabarmen agerian geratu da harremanen garrantzia. Gazteek euskararen erabilera sustatzeko testuinguru berriak eskatzen dituzte, harreman berriak eta aukera berriak sortuko dituzten guneak, non hizkuntzaren formaltasuna hain garrantzizkoa ez den.

Egoera hau ez da soilik Bilbo hiriaren kontu bat, EAE-ko hiriburu eta herrietan ere gertatzen eta kezkatzen duen kontua da. Egorea honi aurre egiteko ekimen zehatzak burutzen ari dira eta aldaketa eraginkorra izan dadin aktore guztien –agintari, eragile eta gazteak- elkarlana beharrezkoa da. Zentzu honetan Bilboko udalak, lan honen bitartez, gaian sakontzeko jarri duen interesa eskertzekoa dugu.

Ikerketa proiektu honetan erabilera urri horren zergatiak ezagutu nahi izan dira gazteen beraien ikuspegitik; eta era berean, neska-mutilek esandakoak euskalgintzako zein gazteekin lanean diharduten eragileekin kontrastatu, denon artean egoerari buelta emateko gakoak eta estrategiak identifikatuz joateko.

Hurrengo orrialdetan azterketa parte hartzaile honen emaitzak eta hausnarketatik jasotako proposamen bilduma batzen ditugu. Emaitza iradokitzailea izatea espero dugu.

1. SARRERA

Azken Mapa Soziolinguistikoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan bere burua euskalduntzat jotzen duen biztanleriaren kopurua %36,4 da (Eusko Jaurlaritza, 2014). 1981az geroztik euskarak 318.000 hitzun irabazi ditu, eta hurrengo urteetan ere goranzko joera mantenduko dala dirudi, 2036rako biztanleriaren %49,5 euskalduna izatea aurreikusten da (Baztarrika eta Erize, 2016). Gaitasun-datuak onak badira ere, erabilera-datuak ez dira horren baikorrak: azken urteetan etxeko erabilerak behera egin du: 1991an %13,8; 2001ean %13,6 eta 2011an %13,4 (Eusko Jaurlaritza, 2014). Eta kaleko erabilerari dagokionean, Gipuzkoan bakarrik izan du igoera egonkor eta esanguratsua: %23,3tik %32,7ra pasatuz 1989 eta 2011 urte bitartean (Soziolinguistika Klusterra, 2011).

Bilbori dagokionez, bera da euskaldun gehien dituen munduko hiria, ia 75.000 euskaldun. Hala ere, euskara %3,2 baino ez da erabiltzen (Soziolinguistika Klusterra, 2011). Izan ere, euskaldunen kopuru absolutua handia izanik ere, biztanleen ia %81,4 erdalduna da; eta euskaldun direnen artean ere %90ek baino gehiagok gazteleraz euskaraz baino errazago egiten duela baieztatzen du (Eusko Jaurlaritza, 2016). Halaber eta oztopoak oztopo, Bilbo gero eta hiri euskaldunagoa dela ezin ukatu daiteke: orain 30 urte biztanleen %6 besterik ez bait zen euskalduna eta gaur egun %22 dira (Saez Beloki, 2017).

Bestalde, azken urteetan, euskal hiztun tipologian ere aldaketa nabarmenak gertatu dira. 1991an euskara familia-transmisioaren bidez jasotakoek osatzen zuten talde garrantzitsuena; 2011rako, berriz, euskara etxetik kanpo ikasitako hiztun berrien taldeak hazkunde garrantzitsua izan du, batez ere gazteen artean. 16-24 adin-tartean %60 euskalduna da, eta haietatik erdia baino gehiago hiztun berria (Eusko Jaurlaritza, 2012).

Gazteen artean euskaldun kopurua handia den arren, asko testuinguru oztopotzaileetanbizi dira, alegia, euskaldunen ehunekoak murrizta den herrietan, Bilbon esaterako. Testuinguruotan gazteek aukera gutxi izaten dute euskara kalean erabiltzeko, eta esan daiteke eskola edota unibertsitatea izaten dela euskaraz egiteko duten leku bakarretakoa. Erabilera urri horrek gazteen hizkuntza identitatean eta euskararekiko eraikitzen duten loturan ere badu eraginik. Euskararen biziberritzean pausoak emateko, gazte horiek euskara nola bizi duten ezagutzea funtsezkoa gertatzen da.

Ikerketa lan honek ezagutza horretan sakondu nahi du Bilboko gazteak aztergai hartuta. Bi dira helburu nagusiak: batetik, Bilboko gazteek euskararekiko dituzten esperientziak ezagutu eta beraien euskara

erabilera sustatzeko gakoak eta proposamenak biltzea; eta bestetik, Bilboko gazteei hitza ematea eta euskaraz jarduteko eta elkar ezagutzeko espazio bat eskaintzea.

Ikerketa aurrera eramateko bi egunetako foroa antolatu da 15 eta 22 urte bitarteko Bilboko gazteekin; eta aldi berean, gazteek foroan esandakoak kontrastatzeko euskalgintzako eragile ezberdinekin mintegia antolatu da. Txosten honetan, gazteen foroa eta eragileen mintegia burutzeko jarraitu dugun metodologia, bi espazio horietan jasotako emaitza nagusiak eta ikerketaren ondorio nagusiak ageri dira.



2. METODOLOGIA

2.1. Lan taldea

Ikerketa proiektu hau aurrera eramateaz ondorengoak arduratu dira:

- **Lan talde profesionala**

Proiektua definitu, aurrera eraman eta amaiera txostena idazteaz arduratu da.

- Jone Goirigolzarri Garaizar (Deustuko Unibertsitatea)
- Idoia Carramiñana Miranda (Deustuko Unibertsitatea)
- Ane Ortega Etcheverry (Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola)
- Josune Etxaniz Barrio (Eusko Ikaskuntza)

- **Gazteen foroko dinamizatzaile-errelatoreak**

Foroko talde dinamikak bideratu, notak hartu eta txosten partzialak idazteaz arduratu dira. Jarduera honetaz Deustuko Unibertsitateko ikerlariak eta Euskal Kultura eta Hizkuntza graduko 3. mailako ikasleak eta Euskal Herriko Unibertsitateko soziolinguistika gaietan doktoregaiak aritu dira.

Laura Alberdi Zumeta, Ana Aldekoa Díez, Nahia Alonso Fernández, Ane Atxutegi Gutiérrez, Paul Beitia Ariznabarreta, Maite Garcia Ruiz, Aitor Ibarretxe Usategi, Ane Iturriarte Basterretxea, Xabier Landabidea Urresti, Uxue Zalbidea Olabarri, Ainara Zuazo Korta, Elena Zubiaga Zorrozu.

2.2. Gazteen foroa

2017ko Urriak 7 eta 21
9:00tatik 14:00ak arte
Euskararen Etxea – Azkue Fundazioa. Aoiz Plaza, 1 Bilbo

PARTAIDEAK

Gazteen foroan Bilbon bizi diren 15 eta 22 urte bitarteko 24 gaztek parte hartu dute. Partaideen arten etxetik euskaldunak diren neska mutilak zein eskolan euskaldundutakoak bildu dira.

Partaideak lortzeko zailtasun handiak izan ditugu; batetik, euskararen gaia gazte askorentzako ez dirudielako oso erakargarria eta, bestetik, foroan parte hartzeak inplikazio aitagarria zekarrelako berekin (bi larunbat goiz). Pentsatu daiteke, partaideen artean euskararekiko interes berezia daukaten gazteen presentzia nabarmendu da.

Partaideen porfila
13 neska eta 11 mutil
9 adingabe (15-17 urte)
15 adin nagusiko (18-22 urte)



HELBURUAK ETA DINAMIKAK

Gazteen foroa bi saiotan burutu da. 1. saioan Bilboko gazteen euskararekiko esperientzien gainean hausnartuko da, alderdi afektiboaren eta praktikoaren gaineko diagnosis burutuz eta euskararen erabilera indartzeko erronkak identifikatuz. 2. saioan Bilboko gazteen euskararen erabilera sustatzeko proposamenak diseinatu dira. Eginkizun hauek 5-6 pertsonakotalde dinamika ezberdinen bitartez burutu dira. Dinamiketako batzuk diseinatzeko *Gu gazteok* (EAB. Gazteriaren Batzorde-atal Berezia, 2016) ikerketa hartu da oinarri moduan.

Hona hemen foroan burututako dinamikak eta hauetako bakoitzaren helburuak:

1. Dinamika: Nolakoak gara Bilboko gazteak eta zerekin identifikatzen gara?

Dinamikaren helburua: Partaideek haiek parte diren Bilboko gazteak zer-nola irudikatzen dituzten ezagutzea eta iruditeria horretan hizkuntza ezberdinek betetzen duten tokia ezagutzea.



Dinamikaren zernolakoa: Taldetan kokatuta, gazteek collage bat sortu dute aldizkarietako irudiak erabiliz. Collagearen bitartez Bilboko gazteak irudikatu dituzte, "nolakoak gara Bilboko gazteak?" galderari erantzunez. Gero, collagean jarritako irudi bakoitza zein hizkuntzarekin harremantzen duten adierazi eta justifikatu dute: euskararekin, gaztelaniarekin, ingelesarekin ala beste hizkuntza batekin. Amaitzeko, hizkuntza ezberdinek gazteen bizitzan eta iruditerian duten lekuaren gainean hausnartu dute.

2. Dinamika: Zer da euskara niretzako?

Dinamikaren helburua: Partaideek euskararekiko dituzten loturak – balioak, sentimenduak, bizipenak, etab.- ezagutzea.

Dinamikaren zernolakoa: Taldeetan jarrita, partaide bakoitzak “Zer da euskara niretzako?” galderari erantzun diopost-it-etan bururatutako lehenengo hitza ala esaldia idatziz. Gero post-it-etan idatzitakoak taldekideei aurkeztu zaizkie. Amaitzeko, taldekide bakoitzak solaskideek esandako hitz ala esaldiak hautatu ala baztertu dituzte beraien euskararekiko sentimenduekin bat egiten duten ala ez.

3. Dinamika: Euskararen erabilera, bere oztopoak eta gakoak

Dinamikaren helburua: Partaideek egunerokoan egiten duten euskararen erabilera ezagutzea eta erabiltzeko oztopoen eta gakoen gainean hausnartzea.

Dinamikaren zernolakoa: Taldetan jarrita, partaide bakoitzak bere eguneroko ibilbidea markatu du Bilboko mapa batean honako esparruak bereiziz: familia, ikasketak, eskolaz kanpoko jarduerak, aisialdia eta teknologiak. Gero markatutako esparru horietako bakoitzean zein hizkuntza erabiltzen duen adierazi dute. Denek beraien ibilbidea deskribatu eta ostean, beraien egunerokoan hizkuntza ezberdinek betetzen duten lekuaren gainean hausnartu dute. Gero, euskararen erabileran arreta jarritz, erabilera hori oztopatzen eta bermatzen duten elementuen zerrenda burutu da,

garrantziaren arabera hierarkizatuz. Amaitzeko, Bilboko gazteek egunerokoan egiten duten erabileraren gainean zenbait ondorio atera dira.



4. Dinamika: Ekimenen laborategia eta spoten jaialdia

Dinamikaren helburua: Bilboko gazteen euskara erabilera sustatu dezaketen ekimenak diseinatzea.

Dinamikaren zernolakoa: Taldetan jarrita, partaideek Bilboko gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko ekimen edo ideia bat diseinatu dute eta spot baten bitartez partaide guztiei aurkeztu.



Horretarako, dinamikan zehar partaideek rol ezberdinak bete behar izan dituzte: euskara teknikari, publizista, antzezle eta spot kritikari. Ekimena edo ideia diseinatzeko, lehenengo, partaideek Bilboko gazteek euskarara hurbiltzeko lagungarri izan daitezkeen elementuen inguruan hausnartu dute, eta horiek aintzat hartuta diseinatu dute spota. “Spoten jaialdia” partaideek talde guztiek spotak aurkeztu eta baloratu dituzte. Balorazioa burutzerakoan spotean agertutako ekimena edo ideia euskararen erabilera sustatzeko zein neurritan izan daitekeen eraginkorra justifikatu behar izan dute.

2.3. Kontraste mintegia

2018ko Urtarrilak 10

17:30tatik 19:30ak arte

Eusko Ikaskuntzaren Bilboko egoitza. Uribitarte ibilaldia, 10 behea, Bilbo

PARTAIDEAK

Kontraste mintegian 14 pertsonak parte hartu dute. Mintegian parte hartzeko ezarritako irizpidea honakoa izan da: gazteekin lan egitea, euskalgintzan jardutea edota Bilboko kultur eragilea izatea. Zehazki, kontraste mintegian honako eragileak egon dira ordezkatuak:

Bilboko Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saila	Bilboko Udaleko Gazteria eta Kirola Saila	Bilboko Udaleko Kultura Saila
Zenbat Gara Elkartea	Bilboko konpartsak	Soziolinguistika Klusterra
AEK euskaltegiak	Euskaltzaleen Topagunea	Azkue Fundazioa
Artez Euskara Zerbitzuak	Elhuyar Fundazioa	Ibarrekolanda BHI 2. hezkuntzako irakaslea

HELBURUAK ETA DINAMIKA

Eragileekin burututako kontraste mintegiak bi helburu nagusi izan ditu:

- Gazteek foroan agertutako ideiak eragileekin kontrastatzea: zerk eman dien atentzioa, zer bota duten faltan, etab.
- Gazteek foroan esandakoak aintzat hartuta, Bilbon gazteen euskara erabilera sustatzeko proposamen zehatzak egitea, atentzio berezia jarriz ekimena arrakastatsua izateko honek bete beharreko balditzetan eta bere egingarritasunean.

Helburuoi erantzuna emateko, eragileak bi taldetan antolatu ditugu, aniztasun irizpidea (erakunde eta lan jarduera) aintzat hartuta, etabi eztabaida talde burutu dira.




3. EMAITZAK

3.1. Gazteekin egindako foroaren emaitzak

3.1.1. Nolakoak zarete Bilboko gazteak?

Bilboko gazteak irudikatzerakoan, partaideek **elementu ugari azpimarratu** dituzte:



Talde guztietan errepikatu diren ideiak **jaia**, eta horrekin batera datozen alkohola, droga eta tabakoaren kontsumoa, **sare sozialen erabilera** eta **itxuraren garrantzia** izan dira. Dena dela, bestelako ezaugarriak ere aipatu dituzte: lagunartea, musika eta kontzertuak, kirola, askatasun nahia, etab.

Partaideek Bilboko gazteak anitzak direla onartzen duten arren, beraien deskribapena egiterakoan estereotipoetara jotzeko joera izan dute. Taldeetako batean bi profil nagusi identifikatu dituzte gazteen artean:

- A. profila: kontsumista, modaren jarraitzailea eta itxurari garrantzia handia ematen diona, gizarteko arazoaren aurrean jarrera pasiboa hartzen duena eta ezagutzarekiko interes gutxi duena.
- B. profila: aktibista eta militantea, arazoaren aurrean mugitzen dena, kale kulturaren eta manifestazioetan parte hartzen duena.


Bilboko gazteak identifikatzen dituzten elementuak hizkuntzekin erlazionatzerakoan, **gatzelaniaren nagusigoa erabatekoa** izan da identifikazio guztietan. Dena dela, aipatzekoa da, **ingelesak** ere bereganatu duela **presentzia globalizazioarekin estu lotutako elementuetan**; adibidez, teknologien erabileran, sare sozialetan, moda kontuetan zein musikan. **Euskarak ez du identifikazio eksklusiborik** bereganatu; gehienez, gatzelaniarekin edo ingelesarekin partekatu ditu zenbait identifikazio; besteak beste, teknologia eta sare sozialak edota festa. Dena dela, aipatzekoa da askotan euskararekiko lotura sinbolikoa izan dela erreal baina gehiago. Gazteek eurek onartu dute Athletic, jaiak zein manifestazioak euskararekin harremantzen dituzten arren, praktikan espazio horietan ere gatzelaniaren erabilera nagusitzen dela; alegia, gazteen artean euskara presente egitekotan **presentzia hori enblematikoa** izaten dela nagusiki.

Partaideek euskara Bilboko gazteriaren parte txiki batekin erlazionatzen dute eta **gazteen gehiengoa euskaratik urrun** sentitzen dute. Azken hauentzat euskara eskolako hizkuntza da, klase orduetatik kanpora edota eskola amaitutakoan euren egunerokotasunetik desagertzen dena. Izan ere, Bilboko **gazteen artean euskara ez dago modan**; are gehiago, euskaraz hitz egiten duena “pringao” edo arraro moduan ere jotzen dute sarritan.

Goian aipatutako bi profilak hizpide hartuta, partaideek gatzelania A profilarekin lotzen dute eta euskara B profilarekin; alegia, profil militantearekin. Bi profil horiek gazteriaren aniztasuna islatzeko baliagarriak ez diren arren, partaideen esanetan, neska mutilak identifikatzerakoan oso indar handia dute. Horrela, **euskaltzalea bazara militantea izan beharra daukazu**, aisialdian Back Stagera ordez Kafe Antzokira edo txosna girora joango zara, modu jakin batean jantziko zara, etab. Prezio sozial hori euskaltzale profilaren barruan zein kanpoan sentitzen dute gazteek. Hala ere, partaideen artean izan da estereotipo horiekin apurtu eta **gazte euskaltzaleen artean profil aniztasuna aitortzeko beharra** agertu duenik.

3.1.2. Zer da euskara niretzako?

“Zer da euskara zuretzako?” galderari erantzutekoan, partaideek **irudi eta sentimendu ugari** adierazi dituzte:



Euskararengan pentsatzerakoan **euskara-kultura** lotura burutzea oso orokorra izan da partaideen artean. Alegia, euskara gure kulturaren parte da, iraganetik gaur egunera arte heldu dena. Tradiziotik harago, gaur egun gazteek euskara **musikarekin** erlazionatu duteaskotan, euskal kulturaren alderdi “cool”ena bezala identifikatu dutena batzuk.

Partaideen artean asko izan dira euskara beraien **identitatearen parte** dela baieztatu dutenak eta euskararekiko lotutako **sentimendu positiboak** ere hamaika izan dira: poza, maitasuna, harrotasuna, etab. Halaber, **sentimendu ezkorragoak** ere mahai-gaineratu dituzte partaideek, batez ere, euskaraz bizitzeko aukera ezak eragiten dizkienak (**inpotentzia, frustrazioa, estresa...**) edota euskaltzalea izan eta euskaraz berba egin gura izateagatik beste gazte edota herritar batzuegandik jasotzen dituzten erantzunengatik (**diferentea, baztertua, gutxietsia**). Ildo horretan, aipagarria da partaide ugari **euskarak ezberdin sentiarazten dituztela** agertu dutela; baina ezberdintasun horrek bi aurpegi izan ditu: batetik, “berezia” sentitzea, euskaldunak bakarrak izatearen ikuspegi positibotik; eta bestetik, besteen begietara diferentea izatea, horrek dakartzan ondorio ezkorrekin: bazterketa, gutxiespena.

Bestalde, euskara hitzari ideia eta elkarketa ugari atxiki dizkiete partaideek. **Eskolarekiko** elkarketa oso indartsua izan da eta, berarekin estu lotuta, **inposizioaren** ideia agertu da, gazte asko eskolan euskaraz hitz egitera behartuta sentitu direlako.

Foroan etxeko euskaldunek parte hartu duten neurrian, euskara **familia eta etxekoekin** ere lotu dute zenbaitek. Ostera, euskara **egunerokotasunarekin pertsona bakarrak** lotu du, euskarak Bilboko gazteen bizitzan duen presentzia urriaren erakusgarri. Horrela, interesgarria da euskara eta herrien artean proposatutako lotura, euskara **herrietan berba egiten den hizkuntza** dela iradokiz, eta ez

horrenbeste Bilbo bezalako hirietan. Ildo horretan, izan da **euskararen egoera gutxitua** ere mahai-gaineratu duenik, euskara hizkuntza ez normalizatu dela adieraziz edota sendotu beharreko mintzaira.

Partaide batzuek euskararen inguruan dagoen **mundu bereiztua** azpimarratu dute: mundu berria, ezberdina eta aberatsa, alegia.

Azkenik, aipatzekoa da euskara eta **jaia** lotu duenik ere izan dela, jaietan ere euskaraz mintzatu zaitezkeela agertuz.

3.1.3. Bilboko gazteen euskara erabilera

1) Euskararen erabilera maila

Dagoeneko aditzera eman den bezala, partaideen esanetan, Bilboko **gazteen hizkuntza goren goren gaztelania** da, bizitzako eremu guztietan gailentzen dena. Proposatutako dinamikan hurrengo esparruetan egiten duten hizkuntzen erabilera esploratzea proposatu zitzaien: etxea, ikasketak, eskolaz kanpoko jarduerak, aisialdia eta hedabideak eta teknologia, eta erantzunak modu honetan laburbildu daitezke:

ETXEA

Partaideen erdiak inguruk etxean gaztelaniaz bakarrik hitz egiten du, laurden batentzako familiako hizkuntza euskara da eta beste laurdenak bi hizkuntzok darabiltzate etxean. Esan beharra dago, partaideen artean etxeko hizkuntza errumaniera eta arabiera duten bi gazte ere izan direla. Orokortzea ezinezkoa den arren, etxetik euskaldunak diren partaideek beraien egunerokoan ere euskara gehiago erabiltzeko joera izan dutela esan daiteke, hedabideen kontsumoan eta sare sozialetan, behinik behin.

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

Salbuespenak salbuespen, gure partaide guztiek eskolaz kanpo jarduerak gaztelaniaz burutzen dituzte. Izan ere, euskaraz egin nahi izatekotan ere, eskaintza oso urria dela adierazi dute; ez horrenbeste umeentzako, baina bai nerabe eta gazteentzako.

IKASKETAK

Gure partaideen artean institutuko zein unibertsitateko gazteak izan dira. Denek murgiltze ereduan ikasi dute eta unibertsitatean dauden gehienek ikasgai batzuk, behintzat, euskaraz ikasten dituzte. Hori horrela izanik ere, esparru akademikoan gaztelaniaren presentzia oso handia dela baieztatu dute, ikaskideekiko harremanean gaztelania nagusitzen delako.

Euskarari dagokionean eskola amaitzeak eragin ezberdina izan dezake partaideen iritziz. Batetik, gazte askoren kasuan euskara euren bizitzatik desagertzen da. Bada desagertze une hori unibertsitate garaiazen amaierara atzeratzen duenik, unibertsitate ikasketak euskaraz egitea erabakitzekotan. Edozelan ere, profil horretako gazteen kasuan eskolan ez eze unibertsitatean ere euskara ikasketa hizkuntza moduan bizi dute gazteek, ezagutzea komeni den hizkuntza moduan bere balio funtzionala dela eta. Bestetik, gazte euskaltzaleen kasuan unibertsitateak euskara erabiltzeko aukera berriak sortu dizkie, herri euskaldunetako lagun berriak egin dituztelako, bereziki. Badirudi, nahia duenarentzako, unibertsitatea euskara erabiltzen hasteko esparru aproposa izan daitekeela, neurri ezberdinetan bada ere.

HEDABIDEAK ETA TEKNOLOGIA

Gure partaideen artean hedabideen kontsumoa ez da handia orokorrean, eta euskaraz are txikiagoa. Hala ere, bada irratia edota egunkaria euskaraz kontsumitzen duenik. Ostera, teknologien enplegua handiagoa da gazteen artean, eta baita berauetan euskararen erabilera ere. Zenbait partaidek ordenagailua eta mugikorra euskaraz konfiguratuta dituzte eta sare sozialetan euskara erabiltzen dutela baieztatu dute, gaztelaniarekin eta ingelesarekin batera. Azpimarragarria da partaideen esanetan whatsapp-en egiten duten euskararen erabilera ahozkoan baino handiagoa dela. Arrazoiaren artean daude whatsapp-ean idazteko denbora gehiago hartu dezaketela zein ahozkoan sentitzen duten lotsa edo konfiantza falta whatsapp-ean ez dutela horrenbeste.

AISIALDIA

Gazteen aisialdian ere euskararen presentzia oso murrizta da. Partaideen hitzetan, testuinguru soziolinguistikoa erdalduna izanik euskaraz jardutea oso zaila suertatzen da. Hori horrela izanik ere, Bilboko zenbait auzo eta gunea "euskaldunagotzat" jotzen dituzte; hala nola, Zazpi Kaleak, Kafe Antzokia zein txosna gunea jaietan. Espazio horiek euskara erabiltzeko aukera zabaltzen diete gazteei, nahiz eta aukera horiei etekina ateratzen diotenak – esaterako, zerbitzariei euskaraz eskatuz- gutxiengoa diren gure partaideen artean. Aurretik aipatutako moduan, nerabe eta gaztetxo euskaltzaleen artean euskararen presentzia enblematikoa, sinbolikoa da praktikoa baino gehiago.

Bestalde, partaide ia guztien lagunarteko harreman hizkuntza gaztelania da, nahiz eta gehienetan taldekide guztiak euskal hiztunak izan. Partaide batek baino gehiagok aipatu izan du Bilbon euskaraz hitz egitea oso arraroa dela; eta euskaraz berba egiten saiatzen dena ez dela begionez ikusten. Hala ere, partaide batzuen artean izan dira ahaleginak kuadrillako harreman hizkuntza euskara bilakatzeko saiakerak, baina arrakastarik gabe; dela gaztelaniaz hitz egiteko ohitura indartsuegia delako dela kuadrillakoek paso egiten dutelako. Partaideen artean euskara gehiago erabiltzeko gogoia orokorra izan da, baina gehienek aukera falta adierazi dute inguruak ez dielako erantzuten. Horrela, partaideek bakarrik sentitzen dute beraien burua, euskal sare faltan.

Esan beharra dago, Bilboko gazteen azpi-munduan euskaraz hitz egiteak aparteko ahalegina eta militantzia eskatzen dituela, eta baita ere jarrera ahaldundu nabarmena.

Hortaz, gure partaideen artean euskararen erabilera egunerokoan oso txikia da. Hala ere, gehien-gehienek adierazi dute euskara gehiago erabiltzeko nahia. Are gehiago, partaideetako batzuek helburu moduan daukate egunerokoan euskara erabiltzea, euskaraz bizitzea. **Gure partaide gehien gehienak eskolan dihardute edo eskola amaitu berriak dira. Hortaz, beraien orain arteko bizitza inguruak nahiko determinatua egon dela esan daiteke. Pentsatu daiteke, beraz, euskara erabiltzeko ate berriak zabalduko zaizkiela beraien moduko gazte euskaltzaleekin batzekotan, behintzat.** Ildo horretan, partaideen artean izan dira euskara erabiltzeko hautu txikiak burutu dituztenak; adibidez, euskara darabilten gazte talde batekin irtetzen hastea edo unibertsitatera Donostiara joateko plana egitea herri euskaldunagoa delakoan.

Era berean, interesgarria da partaideek **jende euskalduna identifikatzeko erabiltzen dituzten estrategiei** erreparatzea. Estrategiok aurre-iritzietan oinarrituak daudela jakin arren eta, hortaz, eraginkortasuna mugatua dela jakin badakiten arren, gazteek aurrez aurre dutenaren **janzkerari, jatorriari** (herria vs. hiria), agurtzeko darabilen **lehen hitzari**, zein elkarrekintza gertatzen den **testuinguruari** (auzoa, gunea, jarduera) arreta jartzen diote.

2) Euskara erabilera mota

Gure partaideen artean asko euskaltzale moduan definitu daitezke: euskararekiko lotura afektibo indartsua daukate eta “euskaldunagotzat” jotzen dituzten espazio eta guneeetan mugitzen dira: Zazpi Kaleak, Kafe Antzokia, txosnak, etab. Hori horrela izanik ere, praktikan beraien euskara erabilera oso murrizta izan ohi da, lagunartean gaztelania nagusitzen delako. Kasurik onenetan, gazteek euskaraz mintzatu ahal izateko lagun puntualen bat edo beste izaten dute; baina lagun horiekin ere gaztelaniaz hitz egiten dute talde handian dihardutenean. Edozelan ere, Bilboko gaztetxoek euskara erabiltzeko modua berezia da. Euskarazko elkarrizketa “garbirik” ez dute izaten normalean. Elkarrizketetan euskara erabiltzekotan, gehienetan, gaztelania ere presente egiten da. Alegia, **kode alternantzia eta elkarrizketa elebidunak nagusitzen dira**, aurretik aipatu den moduan, **sarritan euskarari praktikoki tarte txikia baina sinbolikoki handia eskainiz**. Partaideetako batek argi adierazi zuen: Bilbo bezalako hirian gaztelania, nahitaez, beti egongo dela presente.

3) Euskara erabiltzeko zailtasunak

Partaideei euskara erabiltzeko dauden oztopoen gainean hausnartzeko eskatu zaienean, **zailtasun ugari** mahai-gaineratu dituzte:



Partaideen artean franko errepikatu den oztopo bat Bilboko gazte askok eta askok euskararekiko duten **motibazio eta konpromiso falta** izan da. Izan ere, partaideen iritziz Bilboko **gazte ugari ez dute euskararekiko barne sentimendurik**. Hauentzako euskarak duen balio bakarra tresna balioa da; alegia, euskara jakitea baliagarria suertatu daiteke, esaterako, EGA atera eta etorkizunean lan munduari begira zenbait ate zabaltzeko. Partaideen esanetan motibazio falta hori estu lotuta dago gazteek eskolan izan duten esperientziarekin. Gazte askorentzako **euskara ikasgai bat** baino ez da; eta **atzerriko hizkuntzen kategoria** berean ere kokatzen duenik ere bada.

Gainera, gazteen artean oso orokortua dago inposizioaren diskurtsoa. Gazteak eskolan euskara **erabiltzera behartuak sentitu** dira eta, zenbaitek, euskara zigorrarekin edo “penko”-arekin lotzen dute. Gainera, euskara **irakasteko moduak** ere ez du euskara maitatua izatea laguntzen partaideen iritziz, gramatikara oso fokatua baitago irakaskuntza. Horregatik, eskola orduak amaitzea atsedenaldi

moduan bizi dute askok. “Buf, por fín podemos hablar en castellano” da ume eta gazte askoren bizipena. Euskara eskola lotura indartsuak dakar, besteak beste, gazteen artean euskara modan ez egotea, **euskara “guaya” ezizatea** eta, beraz, euskara egin nahi dutenak berezi moduan ikustea eta, zenbaitetan, hauek gutxiatea.

Gainera, ume eta gazte gehienak euskaldunak diren arren, euskararen eta euskara darabiltenen inguruan **aurre-iritzi ugari** agertzen dituzte. Gazte askoren iritziz euskara **politikoki oso markatua** dago ideologia politiko jakin batekin. Gertaera puntuala den arren, oso azpimarragarria da gure partaide bateri “proetarra” deitu ziotela Berria egunkaria irakurtzeagatik. Iruditeria hori gazteen esparrura ekarriz, euskara gazte profil jakin batekin lotu ohi dute, abertzale militantearekin; gazte euskaldun eta euskaltzaleen baitan dagoen profil aniztasuna desagerraraziz horrela.

Aurrekoarekin estu lotuta dago hurrengo oztopoa ere: gazteek euskal **erreferente falta** sentitzen dute. Partaideen esanetan, euskarak blogger eta youtuber arrakastatsuak behar ditu; “Dulceida” euskaldun bat, besteak beste. Erreferente faltan, gazte gehienak ez dira euskaragatik erakarriak sentitzen.

Bestalde, **hizkuntza ohituren garrantzia** ere azpimarratu dute partaideek. Gura izanda ere, jada gaztelaniaz eraikiak dauden harremanetan hizkuntza aldatzea oso zaila suertatzen zaie gazteei; are zailagoa solaskideak euskararekiko interes berezirik ez badu. Gainera, partaideek esana da nerabeen artean euskaraz hitz egitea ez dela “naturala” Bilbon.

Gazteen harremanetatik harago, **Bilbo eremu erdalduna** dela oso barneratua daukate gazteek. Euskara **ezagutza ez** da handia eta, gainera, euskaraz burutzen diren **ekimenen eskaintza ere oso murrizta** da, are murriztagoa nerabe eta gazteentzako (partaideen esanetan umeek eskaintza handiagoa dute). Eskolaz kanpoko jarduerak, kultura jarduerak, hedabideak, etab. apenas daude euskaraz. Ondorioz, eskolatik kanpora edota eskola amaitutakoan gazteek oso aukera gutxi dituzte euskara erabiltzeko, horrela nahi izatekotan ere; hizkuntza beraien bizitzetatik desagertuz, sarritan.

Bilbon gaztelania hitz eginez lasai bizi zaitezke eta, hortaz, zertarako erabili euskara **beharrrik ez** bada sentitzen? Ildo horretan, elebitasunaren kritika ere burutu du partaide batek, euskal elebakartasuna nagusituko den espazio edo jarduera faltan euskararen beharra ez delako sekula sentituko. Aldi berean, partaideek **erakundeen euskararekiko konpromiso falta** ere kritikatu dute. Partaideen esanetan, hauek ez liriateke autokonplazentzian jauzi behar eta euskararen erabilera sustatzeko gehiago egin beharko lukete.

Dena dela, zailtasunen artean bereziki presentzia handia bereganatu duena gazteek beraien euskara gaitasunarekiko agertzen duten atsegina eza da. Partaide askok adierazi du euskaraz hitz egiteak ahalegin estra eskatzen diela hizkuntza honetan ez dutelako gaztelaniaz duten **erraztasuna**. Are gehiago, partaideen esanetan D ereduan ikasitako gazte askok ez dute elkarrizketa bat euskaraz


izateko baliabide nahikorik. Gainera, eskolan ikasitako euskara lagunartean erabiltzeko egokia ez dela baieztatzen dute; alegia, lagunarteko **erregistro ez formala faltan** dutelasomatzen dute.

Bestalde, oso azpimarragarria izan da partaideek batua vs. euskalkien inguruan agertu dituzten ideiak. Badirudi partaide batzuen artean, behintzat, euskalkiek badutela aura berezi bat, benetako euskararen esentzia, batuaren kalterako. Izan ere, partaide gehienek batuaz hitz egiten dute eta euskalkian berba ez egiteagatik *bigarren mailako euskaldun* sentitzen dira. Euskalkian hitz egiten dutenei inbidia diote eta euskalkian hitz egitea gustatuko litzaieken galdetuta baiezkoa eman dute. **Euskalkiei eskainitako toki pribilegiatuak** komunikazioan ere badu eraginik. Batzuentzako herrietako gazteak ezagutzea euskara erabiltzeko atxakia izan daiteke; hala ere, asko izan dira euskalkian hitz egiten duen pertsona edo talde batekin topo egiterakoan lotsa, beldurra, urduritasuna, etab. sentitzen dutela adierazi dutenak; eta horren kausaz, gaztelaniaz hitz egitea erabakitzen dutenak edota normalean baino isilago gelditzen direnak. Herri euskaldunetan esperientzia deserosoak bizi izan duenik ere izan da partaideen artean; alegia, taberna batera joan eta tabernariari batuaz zuzentzerakoan tabernariak “a mi en batua no” esan eta gaztelaniara jotzea. Horregatik guztiagatik, badira partaideak baieztatu dutenak erosoago sentitzen direla beraien euskara maila eta erregistroa duten euskaldunekin hitz egiten.

Gure partaideen artean beraien **euskara gaitasunarekiko auto-exigentzia maila handia** somatu dugu. Auto-exigentzia hori da, besteak beste, erregistro ez formal falta, akatsak egiteko beldurra eta konfiantza falta, euskaraz hitz egiteak eskatutako aparteko ahalegina eta ahalegin hori egiteko nagikeriaz batera, gazteak gaztelaniaz hitz egitera daramatzana. Ildo horretan, interesgarria da partaide batzuk egindako hausnarketa. Hauen esanetan, euskalkian hitz egiten dutenek beraien buruari legitimitatea eskaintzen diote erdarakadak konplexu barik erabiltzeko, garagardoa esan orde zerbizie esateko, adibidez; beraiek, berriz, ez dira erdarakadak erabiltzera legitimatuak sentitzen.

4) Euskara erabiltzeko gakoak

Euskara erabiltzeko gazteek dituzten oztopoez gainera, hizkuntza erabiltzeko gakoen gainean hausnartzeko ere eskatu zaie partaideei, eta hauxek izan dira erantzunak:



Aurretik aipatu izan da gazteek eskolan euskararekiko eraiki duten harremana hizkuntzaren kalterako izan dela sarritan; euskara eskolarekin, ikasgaiarekin, penkoarekin, inposizioarekin lotzea ekarri duelako. Halaber, partaide gehienek bat egiten dute **eskola euskararentzako funtsezkoa** dela baieztatzerakoan, **berari eskerume eta gazteek euskara ikasten dutelako**. Euskara eskolatik kanpo geratuko balitz desagertzeko arriskua izango lukeela baieztatu duenik ere bada.

Bestalde, euskararen erabilera sustatzeko mintzairarekiko **lotura afektibo indartsua** izatea zentralizat jo dute partaideek; hau eduki ezean gazteak euskarara erakartzea oso zaila dela baieztatuz.

Euskararekiko lotura afektiboak motibazioa dakar berarekin; eta motibazioak, sarritan, **kontzientzia hartzea** eta **iniziatiba**. Partaideen esanetan, euskararen egoeraren gainean sakon hausnartzea eta euskara erabiltzen hasteko erabaki kontzientea hartzea oinarri oinarritzkoak dira Bilbo bezalako hiri batean euskara erabiltzen hasteko; zenbaitentzat gakoetan garrantzitsuenak. Aipatzekoa da gure partaideen artean izan dela kontzientzia eta inizatiba hartze prozesua bizi izan duenik, kontzientzia eta gogo bera duten zenbait kuadrilla kideen artean harreman hizkuntza aldatzera arte.

Euskararen inguruan dagoen mundua ere elementu lagungarri moduan jo dute partaideek. Euskararen inguruan bada **mundu kultural eta harremanezko aberats bat** euskara erabiltzerakoan parez pare zabaltzen zaizuna. Ildo horretan, partaide askok bat egin dute euskal musika mundu horretarako sarbidea izan daitekeela, gazte askok gogoko dutelako euskal musika.

Etxean euskaraz hitz egitea ere gako inportantetzat jo dute gazteek; etxean euskaraz hitz egiten baduzu errazagoa delako gero beste toki batzuetan ere euskaraz hitz egitea. Ildo horretan, **bikote euskalduna eta euskaltzalea** izatea ere giltzarria izan daitekeela baieztatu dute partaideek.

Komunikazio hizkuntza euskara izango duten guneak egoteak ere berebiziko garrantzia dauka partaideen iritziz. Hauek inportantzia berezia eskaini die festa giroko gune euskaldunei. Eta guneak ez eze, euskaraz eskaintzen diren ekimenak ere zentralak dira. Partaide guztiak bat egin dute nerabe eta

gazteei zuzendutako **euskaraz burutzen diren ekimenak** ugaritzea oso lagungarria izango litzatekeela; alegia, aisia eta kultura programa interesgarriak eskaintzea.

3.1.4. Bilboko gazteen euskara erabilera handitzeko proposamenak

Bilboko gazteen euskararekiko loturen eta erabileraren gainean sakon hausnartu eta gero, partaideei Bilboko gazteen euskara erabilera sustatzeko ekimenak diseinatzea eskatu zaie, hauek arrakastatsuak izateko gazteentzako erakargarri suertatu daitezkeenmezu eta ideia klabeak aintzat hartzea eskatuz. Mezu eta ideia horien gainean hausnartzerakoan hainbat elementu interesgarri mahai-gaineratu dituzte partaideek.

Euskarak gazte askorengan duen euskara-eskola lotura akademiko, gris, aspergarri, inposiziokoari aurre egiteko:

Euskara esparru ludikoarekin lotzea; alegia, gozamenarekin, dibertsioarekin, alaitasunarekin.

Euskara "guaya" dela edo izan daitekeela erakustea.

Gazte giroa helaraztea, gazteengandik eta gazteentzako sortutakoa.

Euskara ez erabiltzeagatik mundu aberats eta interesgarri bat galtzen dutela ohartaraztea, baina inoiz ez gazteak errudun sentiaraziz.

Euskararen eta euskaltzaleen inguruan nagusitzen diren aurre-iritzi eta estereotipoei aurre egin eta euskaratik urrun dauden gazteak erakartzeko:

Euskararen irudi irekia agertzea, profil ezberdinetako gazteentzako bizigarri izan daitekeena (nahiz eta kontziente diren gazte batzuk erakartzea errazagoa izango dela).

Euskal erreferente erakargarriak proposatzea, estereotipoekin apurtzeko baliagarri izan daitezkeenak.

Gazteen gaitasun motari lagungarri izango litzaiokeen euskara sustatzeko:

Erregistro ez formala lantzeko lagungarria izatea.

Euskara batua legitimatzea, erdigunean jartzea; alegia, bakoitza duen aldaerarekin, dela euskalkia dela batua, gustura sentitzea.

Gazteek dituzten bizi estilo eta beharri zehazteko egokitzea:

Nerabe eta gazteei zuzentzea.

Sare sozialak presente egotea.

Merkea izatea.

Mezu eta ideia horiek oinarri hartuta, partaideek spoterako proposamen zaparrada burutu dute eta proposamenotatik interesgarrienak hautatu. Aipatzekoa da **proposamen gehien gehienak festa giroarekin lotu** dituztela partaideek, dela **jaia bere horretan proposatuz** (poteo yinkana, gabonetako kotilioia) dela **festari aspektu kulturala ere gaineratuz** (musika kontzertuak, euskal rap ikuskizunak eta oilar borrokak, bertso bazkari hibridoak, jaia eta ekimen ezberdinak uztartuko dituen espazio multifuntzionala). Festa giroaz aparte, **telebistarako nerabe eta gazteentzako eskaintza ugaritzea** ere proposatu dute; atzerriko telesail famatuak euskaratzea edota euskarazko telesail berriak sortzea iradokiz.

Finean, lau spot diseinatu eta antzeztu dira. Hona hemen spot bakoitzaren deskribapena etahelarazitako ideia; eta gainontzeko partaideengatik jaso duten balorazioa:

1. **spota: Ligatzeko euskara AXE baino hobea da, euskarak funtziona**

Errelatoa eta mezua: Gazte kuadrilla batek apustua egin du: baietz euskarak ligatzeko balio? Kuadrilla kideek ligatzeko estrategia ezberdinak erabili dituzte: gaztelaniaz ligatzen saiatu denak kale egin du; berriz, euskaraz ligatzeko hautua egin duenak arrakasta izan du. Izan ere, euskarak interesgarri egiten gaitu. Euskara ligatzeko AXE desodorantea bera baino eraginkorragoa da.

Helarazitako ideiak: Euskara gaztea da, euskara guaya da eta guayak egiten gaitu,

euskara jakin edo erabili ezean aukera interesgarriak galtzen ditugu, euskara ez formala espazio ez formaletan erabiliz ikasten da.



Balorazioa:

+	Dibertigarria, ideia erakargarria, euskaldunak jende interesgarria, originala.
-	Ez da oso errealia.

2. spota: Euskaraz, zergatik ez?

Errelatoa eta mezua: *Gazteak euskara klasean daude* aditzak ikastean, erabat aspertuta eta giro gris eta tristean. Orduan, ikasleek beraien buruei galdetzen diote ea zergatik erlazionatu euskara eskolarekin eta asperdurarekin. Bat batean aldaketa erradikala ematen da antzeztokian: ikasleak klasetik kanpo ageri dira, giro alai eta koloretsuan eta komunikazio hizkuntza moduan euskara darabilte. Gazteak eszenatokiz aldatuz doaz (hondartza, parranda) eta denetan ingurukoek galdera berbera egiten diete: zergatik euskaraz? Taldekideen erantzuna beti berbera da: “Eta zergatik ez?” Agerraldiaren

amaierarako taldekideak eta ingurukoak denak euskaraz ari dira.

Helarazitako ideiak: Euskara ez da eskolako ikasgaia soilik, euskaraz dibertitu gaitzke, beldur eta lotsa barik euskaraz hitz egiteko ahaldundu gaitzke.



Balorazioa:

+	Ideia originala, errealitatea ondo islatu, euskara ikasgai bat baino gehiago dela erakutsi, euskara eta dibertsioa lotu.
-	Irrealia, ez du euskararen erabilera bermatzen.

3. spota: Ausarten 24

Errelatoa eta mezua: Ostirala da eta gazteak ez daukate astebururako plan interesgarririk (telebista ikustea, parkean pipak jatea eta hotza pasatzea...). Orduan Bilbon nerabe eta gazteei zuzendutako espazio multifuntzional baten irekiera jaiaren berri jasotzen dute: “Ausarten 24”.



Tailerrak, hitzaldiak, herri bazkaria, kontzertua, DJa gaua... 24 orduz; gazteek gazteentzako antolatua eta prezio merkean. Gazte guztiek irekiera jaiaren bat egiten dute. Bertan, dibertsioa da nagusi.

Helarazitako ideiak: Gazteentzako propio sortutako espazioa, ekimen kultural eta ludiko askotarikoak, gazteak protagonista, espazio irekia, interes ezberdinetako gazteei zuzendua, gazteen beharrianetara egokitua.

Balorazioa:

+	Dibertigarria, ekintza ezberdinen eskaintza eta gazteentzako interesgarria.
-	Gazteek euskaraz egitea bermatu ez, ez erreala, gazte guztiak es dira “euskara jaietara”.

4. spota: Gau on gala

Errelatoa eta mezua: Neska bik Erasmuseko bi mutili “Gau on” galara etortzeko gonbitea luzatu diete. Gau on gala gabonetako gala da, euskararekiko jarrera aktiboa duen edozein gazteri zuzendua eta gutxika-gutxika bertaratutakoak euskara erabiltzen hastea helburu duena. Bertan, zerbitzariak euskaraz hitz egingo dute, DJak musika erakargarria eta estilo ezberdinetako jartzen du, euskal musika beste hizkuntzetako musikarekin tartekatuz, gazteak nahi duten moduan jantzi daitezke (dotore zein ez), prezioak merkeak dira, baina are merkeagoak edaria euskaraz eskatzekotan, galak Instagrameko kontu ofiziala du eta Bilboko gazte POP eta influencer euskaldunek ere parte hartu dute, baita sare sozialetan galaren publizitatea egin ere.

Helarazitako ideiak: Gazteak euskara erabiltzera animatzea behartu gabe, aurreiritziekin apurtzea euskara profil ezberdinetako gazteei zabaldua dagoela erakutsiz, euskaraz dibertitu gaitezkeela erakustea, gazteentzako erakargarriak diren ekimenak sustatzea.



Balorazioa:

+	Barregarria, ideia ona eta originala, jai giroa, euskaraz dakien jendea erakartzea, motibagarria.
-	Euskaraz egiteko arrazoi bakarra merke edatea.

3.1.5. Foroaren gainera partaideen balorazioa

Aurretik aipatu den moduan, fororako partaideak lortzea oso prozesu zaila izan da. Bilboko eskola, lanbide heziketa zein unibertsitateko irakasleekin kontaktu zabala burutu da, baina gazteengana heldutakoan, haietako askoren jarrera ez da oso emankorra izan. Arrazoiak asko izan daitezkeen arren, pentsatzekoa da foroa bi larunbat goizetan izatea, goizean goiz gainera, eta landutako gaia euskara izatea ez direla oso erakargarri suertatu gazte askorentzako. Horrek ekarri du, bestek beste, foroan parte hartu duten gazteen artean euskararekiko barneko sentimendu eta atxikimendua duten neska mutilak nagusitzea.

Foroko saio bakoitzaren amaieran partaideei hauen ebaluaketa egiteko eskatu zaie, eta emaitzak oso positiboak izan dira. Ebaluaketa orrian “nola etorri zara?” eta “nola zoaz?” galderari erantzuteko eskatu zaie gazteei. Partaide gehienak gogotsu eta jakinminenez etorri dira forora, baina izan dira nagikeria sentitu duten gazteak ere. Hori horrela, saioak amaitutakoan gazte guztiak agertu dira pozik, motibatuta eta aseta.

Saioetan zehar burututako behaketetan ere, partaideen asebetetzea agerikoa egin da. Gazte guztiek jarrera oso aktiboa izan dute dinamika guztietan. Gainera, lan-talde txikietan zein talde handian oso giro ona egon da partaide guztien artean. Aipatzekoa da, lan-taldeak dinamizatzeko ardura ikerketan kolaboratzaile jardun duten unibertsitateko ikasleena izan dela; eta pentsatu daiteke, hauen jarduna gako garrantzitsua izan dela giro atsegin hori sortzerako. Foroko partaideek beraien adineko gazteekin jardun dute lanean, oso modu lasai eta kolaboratzailean.

Ikerketa honen helburuetako bat, Bilboko gazteei hitza ematea eta euskaraz jarduteko eta elkar ezagutzeko espazio bat eskaintzea izan da. Foroa ekimen puntuala izan da, eta beraz, gazteak euskarara hurbiltzeko bere eragin ahalmena mugatua. Hala ere, gazte euskaldun eta euskaltzaleen artean loturak sortzeko jardura interesgarria izan dela baieztatu dute partaideetako batzuk. Beraien artean harremanak mantendu dituzten ala ez ez dakigu, baina bide hori jorratzeko, foroa amaitu eta hurrengo egunerako partaide eta dinamizatzaile guztiei Handia filma ikusteko sarrerak oparitu zitzaizkien; eta jakin badakigu haietako asko pelikula ikustera joan zirela elkarrekin. Bada hau urrats inportantea.



3.2. Kontraste mintegia

Gazteen foroaren ostean, hauekin lanean zein euskalgintzan diharduten hainbat eragilerekin kontraste mintegia burutu da, batetik, gazteek euskararekiko agertutako ideiak kontrastatzeko, eta bestetik, Bilbon gazteen euskara erabilera sustatzeko proposamen posibleen gainean lan egiteko, atentzio berezia jarri proposamenen interes estrategikoari eta arrakastarako baldintzei.

3.2.1. Kontrastea

Kontraste mintegian parte hartu duten eragileek gazteek foroan mahai-gaineratutako ideien gainean hainbat iritzi eta hausnarketa plazaratu dituzte.

1) Diagnosia

Nahiz eta foroan 24 gaztek bakarrik parte hartu duten, bertan egindako **diagnosia oso egokia** dela uste dute eragileek. Gainera, hauen iritziz, diagnosia **Bilbotik harago** ere bada baliagarria, Euskal Herriko txoko askotako gazteen bizipenak antzekoak direlako, bai testuinguru soziolinguistiko oztopatzailletako gazteenak bai Donostia moduko testuinguru soziolinguistiko erdibidekoenak.

2) Irudiak

Gazteek darabilten euskararen inguruko iruditerian, euskara erabiltzen duena **“pringao”** moduan jotzea deigarria iruditu zaie; nahiz eta ohartzen diren gazteek dituzten ereduak **eredu hegemonikoak direla** eta hauetan **gatzelania edota frantsesa nagusitzen direla**; nahitaez, euskara periferian kokatuz eta arrotza bilakatuz. Euskararen biziberritze prozesua oso **“gaztea”** da oraindik eta, horrenbestez, irudi horiekin haustek bere denbora hartuko duela aurreikusten dute.

Bestalde, foroko gazteek **euskararen egoeraren gainean** agertu duten **ikuspegi ezkorra** ere azpimarragarria suertatu zaie eragileei, partaideen euskararekiko atxikimendua kokatuz irudi kritiko horren justifikagarri.

3) Eskola vs. esparru ludikoa

Eskolari dagokionean, eragileei ez zaie batere deigarria egin gazteek euskara-eskolaren artean burutu duten lotura, hortik jaso baitute euskara. Dena den, gazte batzuk euskarari dioten gorrotoa - irakasgaitzat soilik hartuta- leundu eta zaindu beharreko zerbait dela baieztatu dute. Ildo horretan, hezkuntza sistemari eta hizkuntza plangintzari buelta bat ematea gomendagarria litzatekela aipatu dute;**gramatikaltasuna guttiz baztertu barik ere, ahozkotasuna ekimen entretenigarrien bitartez landuz**: kantagintzaren bidez, gazteek irratian saioak prestatuz, etab.

Esparru ludikoan arreta jarriz gero, eragileen ustetan azpimarragarria da foroko gazteek euskara sustatzeko jai giroari eskaini dioten garrantzia. Ohartzen dira gazteak direla eta adinagatik ulergarria dela jai beraien mundu ikuspegiaren atal garrantzitsua izatea. Zentzu horretan **euskara jai eta dibertsioarekin lotzea elementu baikorra** izan daitekeela baieztatu dute euskararen erabileraren sustapenean aurrera pausuak ematen hasteko. Hala eta guztiz ere, garrantzitsuena **euskara gazteen egunerokotasunaren parte bilakatzea** dela baieztatzen dute, bere presentzia bizitzako esparru ezberdinetan bermatuz.

4) Euskara gaitasuna

Gaztelaniaren kasuan, testuinguru oztopatzaileetako gazteek hizkera informala telebistan, etxean zein kalean jasotzen dute eta, beraz, erreferente ugari dituzte. Hori dela eta, hitz egiten duten gaztelania ez da eskolakoa, soilik. **Euskaraz**, aldiz, **erreferenteak falta zaizkie**, batzuek etxekoa badute baina beste batzuek ez. Azken horientzako klaseko euskara izaten da erreferente bakarra eta, hortaz, erregistro informala falta zaie.

Eragileek argi ikusten dute **gazteek informaltasuna bilatzen dutela, bai hizkuntza erregistroan, bai euren bizitzan** -bereziki esparru ludikoan-. Eskolan hizkuntzaren alde formala bakarrik lantzen dutela baieztatzen dute; eta eskoletatik sustatzen den euskara estandarra gazteriak bere hizkuntzat ez aitortzea normalizat jotzen dute, laboratoriaoan sortutakoa delako. Horregatik, **gazteak euren hizkerasortzen joatea funtsezkoa** dela baieztatzen dute, batueran oinarrituz eta naturaltasuna ardatz hartuta. Horren adibidetzat “eskerrik”-en kasua aipatzen dute. Hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik aberrazioa bada ere, ondo dagogazteen mintzoan euskara barneratzen dutelako. Halako elementuak izango lirateke, agian, gazteen erregistro berriaren muina. Baina erregistro hori oraindik garatu barik dago eta garatu dadin euskaraz hitz egitea behar beharrezkoa da. Horrekin batera, azpimarratzen dute gazteek aipatutako euskararen inguruan dagoen puritanismoa eta horrekin apurtu beharra; izan ere, gaztelaniaz ez da euskaraz eskatzen den zuzentasun maila eskatzen.

Hari beretik tiraka, eragileek **gaurko joera hizkuntza batetik bestera pasatzea** dela mahai-gaineratu dute, baina ez bakarrik gazteen artean; helduen artean ere bai. Hizkuntzen alternantzia, euskararen presentzia bermatzen duen neurrian, begionez ikusten dute.

Batua vs. euskalkia jokoaren gainean, eragileek berretsi dute **euskara estandarra darabiltenek sarritan ez dutela euskaraz hitz egiten euskalkia darabiltenekin**; ezta alderantziz ere, askotan **euskalkidun hitzunek ez diete euskara estandarra darabiltenei euskaraz egiten** azken horien hizkera arraroa suertatzen zaielako.

5) Aisialdirako eskaintza murrirtza

Eragileek onartzen dute aukera gutxi daudela aisialdian euskaraz aritzeko, musikaz aparte, ikuskizun gutxi batzuk bakarrik baitaude euskaraz. Dena dela, gazteen pertzepzioa are ezkorragoa dela baieztatzen dute eragileek, **euskaraz ezer ez dagoela** baieztatzen baitute. Eragileen iritziz, erakundeetatik egiten dena ez da, kasu askotan, gazteengana heltzen; are gehiago, gazteen iritzia da erakundeek ez dutela euskararen alorrean ezer egiten. Halaber, eragileek argi ikusten dute gazteek **euskaraz burutzen diren ekimenetan parte hartzeko interes gutxi** dutela sarritan, dela euskararen tasun normatiboagatik dela euskara-eskola asoziazio indartsuagatik. Behin eskola orduak amaitutakoan, gazteek nahiago izaten dute jarduerak gaztelaniaz burutu. Hori dela eta, gazteak euskal eskaintzara hurbiltzeko, gaztetxoenen kasuan behinik behin, gurasoen inplikazioa funtsezkoa da; alegia, haiek ere euskal jardueren alde apustua egitea.

6) Kontzientzia

Eragileen ustetan, gazteek aipatzen dituzten zailtasunak gerora gazteek eurek gaindituko dituzte, hizkera eta erregistro berriak sortuz, euskara pertsonalagoa eginez. Kontua da kontzientzia hartzea beharrezkoa dela horretarako. Argi bat piztu behar zaie. Dena dela, eragileek aipatzen dute **kontzientzia hartzea eta horrek ekarri dezakeen aktibazioa gazteen munduan helduenean baino zailagoa** suertatzen dela sarritan. Eragileen iritziz, nerabezaroa adin txarra da denetarako, baita euskararentzako ere. Edozelan ere, **kontzientzia hartzekotan hauxe gazteen erabaki librea** izan behar dela baieztatzen dute eragileek.

Bestalde, eta ondorio gisa, gazteek foroetan aipatutako guztitik eragileek eskaera edo ideia argi bat jaso dute: gazteak, gazte euskaltzaleak behinik behin, laguntza eskatzen ari dira. Horregatik, pixkanaka-pixkanaka **denetariko erreferenteak eraikiz joan beharko gara gazte bakoitzak, euskararen magalean, bere identitatea aurki dezan.**

3.2.2. Proposamenak

Bilboko gazteen euskara erabilera sustatzeko proposamenak hizpide hartzerakoan, eragileek ideia ugari eta emankorrek plazaratu dituzte, dagoeneko martxan dauden ekimenak zein martxan jartzea interesgarri liratekeenak uztartuz. Proposamen gehienak gazteen **aisialdira** bideratu dituzte eragileek, nahiz eta **eskola girorako** ere planteatu dituzten iradokizunak. Dena dela, proposamen guztien **helburua euskara lagun giroko harreman pertsonaletara eramatea** izan da eta, modu horretan, gazteen euskararekiko atxikimendua indartzea.

Eragileen iradokizunak proposamen motaren arabera sailkatu ditugu, zergatik eta zertarako diren interesgarriak azalduz, arrakastatsuak izateko zernolako baldintzak bete beharko zituzketen planteatuz, eta mota bakoitzeko adibide ezberdinak iradokiz.

Eragileek burututako proposamenak honakoak izan dira:

- Eskolaz kanpoko eta aisialdiko ekimenak (32 or.)
- Eskola, institutu eta ikastetxeak (33 or.)
- Topagunea, espazioa (34 or.)
- Mundu digitala: sare sozialak, komunikabideak (35 or.)
- Trukaketak Euskal Herriko herri ezberdinetako gazteen artean (35 or.)

Eskolaz kanpoko eta aisialdiko ekimenak

Eragileek gazteekin bat egiten dute gaur egun euskaraz eskaintzen diren eskolaz kanpoko eta aisialdiko ekimenak urriak direla baieztatzerakoan eta mota horretako jarduerak ugaritzeko premian.

Zergatik eta zertarako?

- Euskara-eskola lotura eksklusiboa apurtzeko.
- Espazio normatiboetatik harago, euskara gazteen egunerokotasunaren parte bilakatzeko.
- Sare euskaldunak eraikitzeko.
- Lagunarteko hizkera norbereganatu eta sortzeko.

Zelako baldintzak bete beharko lituzkete ekimenok?

- Gazteen interesetatik abiatzea, beti ere, beraien baitan dagoen aniztasuna aintzat hartuta, bai interesetan, bai adin diferentzian, etab.
- Ahalik eta ugarienak izatea eta erregulartasun batekin burutzea.
- Kalitatezkoak izatea.

Badago adibide edo aukera interesgarririk?

- Harrapazank¹: Gazteen intereseko ekimenak burutzen dituzte. Begiraleak gazteak dira eta horrek partaideak eroso sentiaraztea dakar. Begiraleen gainbegiratzeak euskararen presentzia bermatzen du, neurri batean behintzat.
- Dagoeneko martxan dauden gune eta jarduera publikoetan euskarazko eskaintza barneratzea: Bilbao Kirolak, musika eskola, eta tankera horretako udal espazioetan.

¹Bilboko Udalaren Euskara eta Hezkuntza Sailak eraturako gazteentzako aisialdi zirkuitua. www.harrapazank.com

Eskola, institutu eta ikastetxeak

Eragileen iritziz, gazteak euskarara erakartzeko eskolak funtzio nagusia izaten jarraitzen du eta, beraz, ezin daiteke albo batera utzi.

Zergatik eta zertarako?

- Euskara berdin ikasgaia berdin asperdura asoziazioari atxikitzen zaizkion irudi negatiboak gainditzeko.
- Hezkuntza sistema, euskarari lotutako esparrua izanik, gazteen euskara gaitasuna, idatzizkoa zein ahozkoa, hobetzeko espazio egokia delako.
- Gazteen euskararekiko aurre-iritzia eta motibazio positiboak lantzeko espazio egokia izan daitekelako.
- Eskolak daukan irismen ahalmenagatik, eskolatik kanpo euskaraz burutzen diren ekimenen berri gazteei emateko leku egokia delako.

Zelako baldintzak bete beharko lituzkete ekimenok?

- Euskara ikasi eta sustatzeko metodologia berriak saiatzea, ikuspegi gramatikal hutsetik ikuspegi komunikatibora salto eginez.
- Euskara ikasgai moduan jasotzeaz gainera, bere erabilera sustatzeko bestelako jarduerak antolatzea, eskolatik bertatik zein erakundeetatik.
- Eskola, institutu eta ikastetxeen inplikazioa eta koordinazioa ziurtatzea.

Badago adibide edo aukera interesgarririk?

- Haur antzerki topaketak²: Kurkuluxetan elkarrekin urtero-urtero ume eta gaztetxoentzako antzerki topaketak antolatzen ditu Kafe Antzokian. Bertan eskola desberdinetako ume eta gazteek euskaraz antzeztzen dute.
- Irrati saioak: Ume eta gazteek eskolan irrati saioak prestatzea eta irratan bertan emititzea.
- EkoLinguA solas-jokoa³. Gaztetxoengan hausnarketa soziolinguistikoa sustatzeko EkoLinguA solas-jokoa eskoletara eramatea. Dagoeneko egon dira esperientziak eta emaitzak baikorrak izan dira, nahiz eta bere arrakasta talde batetik bestera aldatu.

²Urtero-urtero Kafe Antzokian ume zein gazteen Antzerki Topaketak antolatzen ditu Kurkuluxetan elkarrekin. Bertan eskola eta antzerki eskoletako hainbat eta hainbat umek parte hartzen du.

³EkoLinguA hausnarketa soziolinguistikoa sustatzeko mahai jokoa da. Hizkuntza ekologiaren ideietan oinarrituta, hizkuntza komunitatea diskurtso mailan ahalmentzea dauka helburu. Ikusi: <http://ekolingua.eu/>

Topagunea, espazioa

Jarduera eta ekimen konkretuez harago, gazteek euskaraz bideratuko den lokal edo espazio bat izatea interesgarria litzatekela azpimarratu dute eragileek. Lokala gazteen topagunea izateaz gainera jarduera desberdinak burutzeko espazioa izango litzateke.

Zergatik eta zertarako?

- Euskara-eskola lotura eskusiboa apurtzeko eta euskara espazio ez formalekin harremantzeko.
- Espazio normatiboetatik harago, euskara gazteen egunerokotasunaren parte bilakatzeko.
- Sare euskaldunak eraikitzeko.
- Lagunarteko hizkera norberegianatu eta sortzeko.

Zelako baldintzak bete beharko lituzkete ekimenok?

- Espazio multi-funtzionala izatea.
- Dispersioa ekiditea.
- Interes ezberdinetako gazteei zuzendua egotea.
- “Euskara” etiketa ez eramatea, horrek gazte batzuegan efektu negatiboa eragingo lukelako.
- Eragile desberdinen artean lan konbinatua burutzea:
 - Udalaren laguntza izan arren (baliabideak, gastuak, etab.), komeniko litzateke oso instituzionala ez izatea, gazteak espaziora erakarriak sentitzeko.
 - Herri mailako elkarte eta eragile desberdinen inplikazioa bermatzea, espazioari bizitasuna emateko.
- Gazteei askatasuna eskaintzea beraiek espazioa auto-gestionatzeko, konpromisoa eta zaintza eskatuz, baina era berean, askatasuna eskainiz (ordutegiak, erabilera, etab.).
- Adinaren aldagaia aintzakotzat hartzea, adin tarte oso txikian desberdintasun handiak nabaritzen direlako gaztaroan.
- Udalari dagokionez, zenbait eragozpen aurreikusten dira; besteak beste, hiriko lokal libreen edo auzo etxeen erabilgarritasuna edota horien mantenu kosteak.

Badago adibide edo aukera interesgarririk?

Eragileek existitzen diren hainbat proiektu aipatzen dituzte, Bilbon bertan zein Bilbotik kanpo.

- Astra. Kulturarako fabrika soziala (Gernika).Jarduera sozio-kulturaletara zuzendua dagoen eraikin publiko okupatua eta autokudeatua da, euskara komunikazio hizkuntza nagusi duena.
- La Karmela. Karmelo ikastola okupatua da. Bertan, jarduera sozio-kultural ezberdinak antolatzen dituzte, euskaraz zein gaztelaniaz, autogestioan.
- Kukutza. Errekalde auzoko okupatutako eta autokudeatutako gaztetxea izan zen (1996-2011). Bertan, aisia eta kultura jarduera ugari antolatzen ziren eta Euskal Herriko sortzaile kultural askoren erreferentziazko zentro bilakatu zen.
- Gaztetxeak. Izaera auto-gestionatua duten gazte lokal okupatuak dira. Eragileek antzematen dute giro nahiko etiketatua duten lokalak direla. Hala ere, eredu moduan interesgarria suertatzen dira, gazteak beraiek direlako gunea auto-gestionatzen dutenak, erantzukizuna beregain harturik.
- Bilborock. Bilbo Zaharreko musikari estu lotutako gunea sozio-kulturala da. Bertan euskaraz ez du berariazko tokirik. Hala ere, gazteentzako interesgarri suertatzen den espazioa da eta, beraz, aintzat hartzekoa eredu gisa.

Mundu digitala: sare sozialak, komunikabideak

Mundu digitala ere landu beharreko esparrua dela baieztatu dute eragileek.

Zergatik eta zertarako?

- Gazteentzako mundu digitala zentrala delako eta, hortaz, euskara gazteentzako erakargarria bihurtzeko mundu horretan presente egotea inportantea delako.
- Euskal erreferenteak sortzeko.

Badago adibide edo aukera interesgarririk?

- B-tuber tailerra. 14 eta 17 urte bitarteko Gaztetxoei zuzendutako tailerra youtuber izateko erramintak eskaintzea helburu duena. Azkue Fundazioko arduradunak (Bilboko Udalarekin batera antolatzaile den fundazioak) aipatu duenez, tailerrak ez zuen arrakasta handirik izan gaztetxoen artean. Bere iritziz gazteak euskaraz burutzen diren jardueretara erakartzea zaila suertatzen da; nahiago izaten dituzte gaztelaniaz burutu.
- Twitterreko mikro ipuinak, gift dibertigarriak euskaraz, etab.
- *Go!azen* telesail musikalaren fenomenoak. Golazeneko pertsonaiak ume eta gaztetxoen artean erreferente bihurtu dira. Eragileek aipatu dute euskal erreferenteak sortzeko momentuan inportantea dela gazteek erreferente horiek euskararekin soilik identifikatzea, gaztelania tartean sartzekotan bere eraginkortasuna zeharo mugatu daitekelako.
- *Gu eta Gutarrak* edo *Gure Kasa* telebista programak. Programa hauek ere euskal erreferenteak sortzeko proposak dira, baita euskara dibertsioarekin lotzeko ere.

Trukaketak Euskal Herriko herri ezberdinetako gazteen artean

Euskal Herriko herri ezberdinetako gazteak euskaraz elkar ezagutzea ere inportantea litzateke eragileen iritziz.

Zergatik eta zertarako?

- Euskaraz bizi diren gazteak badirela erakusteko.
- Gazte euskaldunen artean sareak sortzeko.
- Euskara eredu ezberdinak ezagutzeko eta norberaren euskara legitimatzeko.
- Lagunarteko hizkera norberenganatu eta sortzeko.

Badago adibide edo aukera interesgarririk?

- Trukaketa esperientziak egon izan dira. Eragileen iritziz, Euskaraldia⁴ ekimena Euskal Herriko herri eta hiri ezberdinetan burutuko denez, toki ezberdinetako gazteak elkar ezagutzeko aprobetxatzea interesgarria litzateke.

⁴Euskaraldia Euskal Herri mailan, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, euskararen erabilera areagotzeko proposatu den hizkuntza aktibazio ekimena da. Ikusi www.euskaraldia.eus

3.2.3. Ekimenak aurrera eramaterakoan kontuan hartzekoak

Goian aipatutako proposamen guzti horiek aurrera eramateko hainbat elementu kontuan hartu beharko liratekela aipatzen dute eragileek.

- *Euskaraz bideratzen diren ekimenetan gazteen artean euskararen erabilera bermatzeko estrategia desberdinak garatu beharko lirateke.*

Eragileek ardura agertu dute euskaraz eskaintzen diren ekimenetan gazteen arteko komunikazio hizkuntza euskara izateak dakartzan erronken gainean. Erronka horiei modu arrakastatsuan erantzuteko, batetik, gazte parte hartzaileengan kontzientzia soziolinguistikoa sustatzeko aurre-lanketa bat egitea interesgarria izango litzatekela aipatu dute eragileek; eta bestetik, ekimenak dirauen bitartean, Eusle metodologia⁵ erabiltzea egoki ikusi dute, partaideen artean eusle lana burutuko duten gazte parte hartzaileak identifikatuz eta hauei eusle funtzioa esleitzuz.

- *Euskararekiko atxikimendu ala inplikazio berezia duten gazteekin lan berezia egitea aproposa litzateke.*

Gazteen artean badira euskararekiko atxikimendu berezirik ez duten gazteak, baina baita euskara erabiltzeko nahia agertzen dutenak. Azken gazte hauek gako inportantea dira gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko, lider edo erreferente moduan jokatu ahal izango luketelako. Bide hori zein modutan burutu ahal izango litzateke?

1. Lehenengo: Gaur egun gazte euskaltzaleak oso sakabanatuta daudela aintzat hartuta, gazte hauek elkar ezagutzeko ekimenak antolatzea, beraien artean sareak sortu eta, taldearen indarra aprobetxatuz, beraien hizkuntza ahalduntzea sustatuz.
2. Bigarren: Behin lehen lanketa hori burututa, gazte euskaltzaleak gainontzeko gazteentzako erreferente bilakatzea, euskarazko ekimenetara beste gazteak erakartzeko amu moduan jokatzuz.
3. Hirugarren: Behin gazteak euskaraz burutzen diren ekimen edo espazioetara erakarrita, gazte euskaltzaleak eusle edota dinamizatzaile lana beregain hartzea, modu horretan euskararen presentzia, neurri batean behintzat, bermatzeko.

⁵Eusle Metodologia hizkuntza ohiturak aldatzeko metodologia bat da. Metodologia honetan eusle izeneko figura da gakoa. Talde baten baitan pertsona batzuk eusle lana hartzen dute beregain. Eusle bihurtzerakoan, beti euskaraz egiteko konpromisoa hartzen du euskara dakiten guztiekin, nahiz eta solaskideak erdaraz erantzun. Bere hizkuntza hautuarekin ingurukoak euskaraz egitera bultzatzen ditu eta, modu horretan, euskararen erabilera presente egiten da bestelako egoera batean egingo ez litzatekeen kasuetan.

- *Euskaraz burutzen diren ekimenetara gazteak erakartzeko komunikazioa egokia izatea funtsezkoa da.*

Komunikazioa aproposa izateko bi elementu dira funtsezkoak: batetik, zer komunikatzen den eta, bestetik, zelan komunikatzen den. Mezuak positiboak eta erakargarriak izatea erabakigarria suertatu daiteke. Eragileek Kike Amonarrizen estiloa aipatu dute apropos moduan. Era berean, eskaintza gazteengana heltzea funtsezkoa da, alegia, gazteek eskaintza horren berri izatea. Horretarako, ikusgarritasuna lantzea nahitaezkoa da.

4. LABURBILDUZ

Bilboko gazteen euskararekiko esperientzien gaineko ikerketa lan honek hainbat datu interesgarri mahai-gaineratu ditu, Bilboko gazteenak ez eze, Euskal Herriko beste hainbat txokotako neska mutilen euskararekiko bizipenak ulertzeko interesgarri suertatu daitezkeenak.

Ikerketako emaitzak interpretatzerako orduan, komeni da gogoratzea foroan parte hartu duten gazte gehienek euskararekiko lotura afektibo nabarmena erakutsi dutela; eta hortaz, ez dutela Bilboko gazteriaren irudi osoa beregain hartzen euskara aldagaiari dagokionean. Beraz, ikerketa honetan eskainitako diagnosia euskararekiko atxikimendua agertzen duten gazteek Bilboko gazteriaren eta euskararen inguruan burutzen duten irakurketa da, beraien esperientzia eta bizipenetatik abiatuta.

Hona hemen **gogoeta nagusiak**:

- Gazteek beraien burua jaiari, sare sozialei eta itxurari estu lotuta irudikatzen dute. Lagunartea, kirola, askatasun nahia, etab. ere elementu garrantzitsuak dira beraien auto-kontzeptuan.
- Orokorrean, euskarak ez du Bilboko gazteen identitatean leku berezirik betetzen. Are gehiago, gazte gehienak euskaratik urrun sentitzen dira; nahiz eta egon badauden euskararekiko lotura afektibo handia agertzen duten gazteak. Azken hauentzako euskara beraien identitatearen parte da, eta sentimendu positibo ugariaren sortzaile: maitasuna, harrotasuna, berezi sentitzea, poza, etab.
- Bilboko gazteek euskara politikoki markatua ikusten dute eta euskaltzale diren gazteen irudi estereotipatua dute (euskaltzalea berdin abertzale militantea), euskararekiko atxikimendua duten gazteen baitan dagoen aniztasuna ezkutatuz.
- Bilboko gazteek euskara hizkuntza-eskola moduan bizi dute, eta beraien artean inposizioaren diskurtsoa oso orokortua dago, alegia, eskolan euskaraz hitz egitera behartuak izan direlako.
- Euskara-eskolaren artean dagoen lotura indartsuak dakar gazteen artean euskara modan ez egotea, guaya ez izatea eta, euskara hitz egin nahi duten gazteak berezi, ezberdin moduan etiketatzea.
- Gazteen egunerokoan gaztelania da hizkuntza nagusia. Euskararen erabilera, berriz, hezkuntza sistemari eta ikastorduei estu lotuta dago. Gainontzeko gizarte esparruetan gazteek ez dute euskara erabiltzen; eta egiten dutenetan, euskararen erabilera enblematikoa, sinbolikoa izaten da gehiago, gaztelania gailentzen den elkarrizketa elebidunetan eta etengabeko kode alternantzian.
- Lagunartean euskara erabiltzea arraroa, arrotza iruditzen zaie gazteei. Hori dela eta, euskara erabili nahi duten gazteak nahi eta ezinean dihardute, sare euskaldun faltan eta inpotentzia, frustrazio, estres eta bakardade sentimendu nabarmenarekin.

- Gazteen euskara erabilera oztopatzen duten faktoreen gainean hausnartzerakoan, motibazio eta konpromiso falta, euskara-eskola lotura eta inposizioaren bizipena, euskararen irudi politikoki markatua, euskal erreferente falta, hizkuntza ohiturak, testuinguru soziolinguistiko erdalduna eta euskaraz burutzen diren ekimen eta jarduera eskaintza urria, erakundeen euskararekiko konpromiso falta, gazteek beraien gaitasunarekiko duten auto-exigentzia eta lagunarteko erregistro ez formala zein herriko hizkera falta aipatu dituzte.
- Berriz, gazteen euskara erabilera sustatzeko lagungarri suertatu daitezkeen elementuak identifikatzerako orduan, eskola bera -euskara ikasteko aukera zabaltzen duelako-, euskararekiko lotura afektiboa, kontzientzia hartzea eta inizatiba, euskararen inguruan dagoen mundu aberatsa, sare euskaldunen parte izatea, besteak beste, familia edota bikote euskalduna, zein euskarazko jardueren eskaintza izatea aipatu dituzte.
- Gazteen artean euskararen erabilera handitzeko landu beharko liratekeen elementuak hizpide hartuta, euskara esparru sozial eta ludikoan presente egitea, euskararen irudia aldatzea (guaya, gaztea, anitza, mundu aberatsa), euskal erreferenteak sortzea, beraien gaitasuna eta auto-kontzeptua hobetzea, lagunarteko erregistro ez formala garatzea eta batua legitimatzea aitatu dituzte.
- Bestalde, gazteen erabilera sustatzeko proposamen zehatzak burutzerako orduan, eskolan euskara ikasi eta sustatzeko metodologia berriak saiatzea (ikuspegi gramatikal hutsetik ikuspegi komunikatibora salto eginez), gazteen interesetatik abiatuta aisialdirako jarduera eskaintza handitzea, gazteak protagonista izan eta jarduera ugari burutuko diren topagune-espazioak eratzea, sare sozialetan euskal erreferenteak sortzea, komunikabideetan gazteei zuzendutako programazio interesgarria eskaintzea, zein herri ezberdinetako gazteen artean trukaketak burutzea mahai-gaineratu dira.
- Proposamen guzti horietan gazte euskaltzaleekin lanketa berezia egitea interesgarritzat jo da; gazteok bilakatuz gainontzeko gazteak euskarazko jardueretara erakartzeko amua eta, behin jardueretara erakarrita, euskararen erabileraren bermatzaileak, eusle figura beregain hartuz.

Laburbilduz, Bilboko gazte gehienak euskaratik urrun samar sentitzen dira. Hala ere, foroko partaideen eta eragileen iritziz, hauek euskarara erakartzea posible da euskarak gazteen bizitza ludiko-sozialaren parte izatea lortzen badu. Hortaz, gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko neurriak espazio ez formaletara bideratzea apropos-aproposa litzateke. Bide horrek, gainera, gazteek euskararekiko duten irudia hobetzen lagunduko luke eta,aldi berean, gazteen euskararekiko lotura emozioetatik garatzea ahalbidetuko luke.

5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Baztarrika, P. eta Erize, X. (2016): *Eta hemendik aurrera zer? Euskararen garapenaren iraunkortasuna edo "dabilan harriari etzaika goroldiorik lotzen"*, Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.
http://www.euskara.euskadi.eus/contenidos/noticia/eta_hemendik/eu_def/adjuntos/Eta%20hemendik%20aurrera%20zer_2016-05-03.pdf

EAB. Gazteriaren Batzorde-atal Berezia (2016): *Gu gazteok*, Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8239/Gu_gazteok.pdf?1465393066

Eusko Jaurlaritza (2016): *VI Inkesta Soziolinguistikoa*.
[https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8569/VI_Inkesta_Soziolinguistikoa_EA E.pdf?1476439692](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/8569/VI_Inkesta_Soziolinguistikoa_EA_E.pdf?1476439692)

Eusko Jaurlaritza (2014): *V Mapa Soziolinguistikoa*, Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/4411/V_Mapa_EU.pdf?1396872659

Saez Beloki, P. (2017). "Euskarak Bilbo behar du". <https://www.uztarria.eus>

Soziolinguistika Klusterra (2011): *Hizkuntzen Kale-neurketaren VI neurketa*.
<http://www.soziolinguistika.org>

BULEGO NAGUSIAK

Miramar Jauregia. Miraconcha, 48
20007 - DONOSTIA
T. 943 310 855 | Fax 943 213 956
E: ei-sev@eusko-ikaskuntza.eus

ARABA

Pedro Asua 2 - 2 / 63 bulegoa
01008 - GASTEIZ
T. 945 231 552
E. gasteiz@eusko-ikaskuntza.eus

BIZKAIA

Uribitarte ibilaldia 10. Behea
48001 - BILBO
T. 944 425 287
E. bilbo@eusko-ikaskuntza.eus

IPAR EUSKAL HERRIA

51, quai Jauréguiberry
64100 - BAIONA
T. 559 598 290 | F. 559 461 844
E. baiona@eusko-ikaskuntza.org

NAFARROA

Gaztelu plaza, 43 bis, 4. D
31001 - IRUÑEA
T. 948-222105
E. iruna@eusko-ikaskuntza.eus



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez